Gobierno de Navarra
Departamento de Educación
Nafarroako Gobernua
Hezkuntza Departamentua

Escuela Oficial de Idiomas de Pamplona
Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofiziala

Compañía 6 – 31001
Pamplona/Iruñea
Tel: 848.43.00.40 · Fax: 848.43.00.51
E-mail:
eipamplo@educacion.navarra.es

eoip·iheo

INGELESEKO ERDIPRESENTZIAZKO IKASTAROAK

NORENTZAKO

Erdipresentziazko ikastaro hauek ikaskuntza autonomoan trebatuta egon eta etxean bakarkako lana egiteko konpromisoa hartzeko gai den ikasleari zuzenduta daude. Halaber, modalitate honetan matrikulatzen denak Internet eta beste tresna informatikoak erabiltzeko gaitasuna izan beharko du.

BETEBEHARRAK

Erdipresentziazko modalitate honetan, ikaslearen dedikazioa aurrez aurreko lanaren eta bakarkako on-line lanaren artean berdin banatzen da.

Modalitate honetako prestakuntza honakoa da:

- Eskolara bertaratzea derrigorrezkoa (%70) izanen duen **asteko ordu eta erdiko saio bat izanen da.**
- Irakasleak proposatutako bakarkako lana ingurune birtualean eginen da (on-line plataforman). Gutxi gorabehera **astean zehar lau orduko bakarkako lana egitea** eskatzen du**.**

Internetera banda zabaleko konexioa duen ordenagailua eduki eta irakaslearen tutoretzapean modu autonomoan ikasteko gaitasuna izan beharko du.

FORMATUA

Erdipresentziazko ikastaro honen iraupena presentziazkoena bezalakoa izanen da, 130 ikastordukoa, hain zuzen. Hauetako erdiak klasetik kanpo izanen dira, ikasleari gehien komeni zaion ordutegian.

Honek ez du esan nahi maila bera ordu gutxiagotan emanen denik, klasean egiten den lana on-line plataforman eginen den **lan autonomo** bihurtuko dela baizik.

NOLA FUNTZIONATUKO DU ERDIPRESENTZIAZKO IKASTAROAK

Aurrez aurreko saioa ikasleak eskolatik kanpo eginen duen lan pertsonalarekin estuki lotuta dago. Horregatik, **derrigorrezkoa izanen da** on-line plataforman argitaratuko diren lanak egitea.

Astero, ikasle bakoitzari presentziazko hiru saio eskainiko zaizkio **bat** aukeratzeko (ezin da saio batera baino gehiagora joan). Beraz, ikasleak astero eskolako webgunearen bidez bere beharretara hobekien egokitzen den saiorako **izena eman** beharko du. Taldean eta eskolan jarraitu ahal izateko, presentziala den saio honetara etortzea derrigorrezkoa izanen da %70ean.

Irakaskuntza mota honek Iruñeko HEOeko lerro pedagogikoa jarraitzen du, metodologia aktiboekin konbinatutako komunikazio eredua, ikaslea jarriz ikaste prozesuaren erdian.

IKASTAROA

On-line zatia plataforma egonkor eta birziklagarriaren bitartez eginen da, ikasleak bere denbora pertsonalean eta irakaslearen gainbegiradapean landu beharko dituen eduki eta zereginekin. Lan hauen **%70 egitea** derrigorrezkoa izanen da taldean eta eskolan jarraitu ahal izateko.

Bestea, **presentziazkoa**, **asteko ordu 1 eta 30 minutu iraungo duen saio bat** izanen da, eta gehienez 15 ikasle izango ditu.

TUTORETZAK

Ikasleak **hilabetero** 20 minutu iraunen duen aurrez aurre edo on-line izango den bakarkako tutoretza saio batean parte hartuko du. Tutoretza saio horretan, programazioaren helburuak lortzeko zalantzak argitu edo jarraibideez mintzatuko dira.

Ikastaro hauetan izen ematea ikasle ofizialen ohiko matrikula prozedura jarraituz eginen da; hau da, aurreinskripzioa, zozketa eta on-line matrikula.

Argibide gehiago https://eoip.educacion.navarra.es web orrian.